

Joseba Lakarra: “Nire ustez, hau da mezu nagusia: euskara da euskaldun egiten gaituena”

GALDERA.- Euskaltzain oso izendatu zintuztenetik hilabete luzea joan da. Lehen eguneko ilusioaz gain, orain, lasaiago zaudela, ondo ikusten duzu zure burua euskaltzain oso bezala?

ERANTZUNA.- Egia esan, urduritu baino gehiago mira egin nuen proposamenarekin lehen eta izendapenarekin gero; hots, ez zen nire asmo edo helburuetan sartzen holakorik. Nolanahi ere, ez behar guztiak holakoak izatea edozeinek hartuko luke. Tira, ez dakit esaten neure burua nola ikusten dudana euskaltzain bezala -horretarako ez naiz trebatu gehiegi eta baliteke ikasi beharrekorik izatea-; itxaroten dut, halere, kideak eta ingurukoak ez gehiegi lotsatzea.

G.- Zer eman nahiko zenioke Akademiari? Eta zer emango dizu Euskaltzaindiak? Edo zer espero duzu?

E.- Nik, egin nezakeen ikerketa lanaz kanpo, ez bide diezaioket Euskaltzaindiari gauza handirik eman ahal; Euskaltzaindiak niri, askozaz gehiago, noski: esaterako, dagoeneko ezagutu izan dut bestela nekez ezagutuko nukeen jendea eta ikerketaren alderdi batzuetan laguntza edota elkarlanik ere seguru naiz izango dudala.

G.- Berriztatze/gaztetze prozesu baten barruan dago Euskaltzaindia. Inportantea da? Zelan ikusten duzu?

E.- Berritzea beti da egoki erakunde guztietan, jakina; alabaina, ez dut azken 20 urteotan bederen, Euskaltzaindia erakunde zaharkitu gisa ikusi, kontrakoa garrantzitsuenean: nik ezagutu dudana 68az geroztiko Euskaltzaindia izan da, eta, gainera, horren barnean hizkuntzaren batasunaz eta haren corpusaz eta estatusaz arduratu den jendea izan dut, halabeharrez, hurbileneko. Bestalde, beharbada gure Akademiaren historia beste zenbaitenarekin erka bageneza nabarmenki gazte eta berri dela eta izan dela deritzot.

Bide batez, “gaztetasuna” noiz arte luzatzen da orain? Ez dakit Euskara Batuko hiztegian 45 urte betetakoak ere sail horretan sartzen gaituzten eta, berez, ez dut uste gaztetasuna bertuterik nagusiena izan litekeenik ere: behin baino gehiagotan esan den bezala, denborarekin desagertzen den gaixotasuna edo da askorentzat eta, niretzat, aukeran, interesgarriago dira aurrekoen heldutasunak dakartzan onurak jasotzea eta lehengoan eta ondokoan arteko zubi-lanak egiten jakitea.

G.- Batzuek diotenez, urte askoren buruan, filologoak ez direnei, atek zabaldu dizkie Euskaltzaindiak. Filologoak, filosofoak,

ingeniariak, idazleak... guztiak dira beharrezkoak? Formazio eta ibilbide ezberdinen arteko esperientziak batzea onuragarria da gure hizkuntzarentzat?

E.- Nik jakin nahi nuke filologoak noiz izan diren gehiengoa Euskaltzaindian. Teologoak eta antzekoak alde batera utzirik, esango nuke -gizartean bertan legez, bidenabar- filologoak bezain ugari (hitz honen adiera bat baino gehiagotan) izan direla ingeniariak, demagun, eta baita idazleak ere, non ez diren batzuen eta besteen batuketak aldi berean. Eta hori filologian lizentziatu eta filologoaren arteko bereizketak egiten hasi gabe, noski, bestela ez baitakit zenbat benetako filologorekin -pare bat testu garrantzitsu ikertu eta argitaratu dituztenekin, demagun- geldituko ginatekeen.

Bide batez, Euskal Herritik kanpora (eta are gutxiago Akademietan) ez omen da bekatu larria filologo izatea, hots, delako herri baten -norberaren zein besteren- hizkuntzaz eta hizkuntza horren inguruan idatziz zein bestela eraturako kulturaz, ofiziokoak nola (ez zaletasun hutsez) artatzea ez omen dago debekatua eta ezta gaizki ikusia ere; are gehiago, hori zeinek bere ogibide bilakatzea ere zilegi omen da. Gure artean, aldiz, nahiago omen ditugu euskaltzaleak euskalariak baino; bada honetaz Mitxelena-ren aspaldiko istorio bat baina, tira, utz dezagun hori beste baterako.

Begien bistakoa iruditzen zait Euskaltzaindiak modu batera edo bestera euskararen bizitza osoa islatzeko eta ikertzeko eta euskaldunei euskaraz osoki bizitzen laguntzeko une bakoitzean eskura ditzakeen lanabes eta bide guztiak behar dituela ibili. Horretarako, Noeren Arka bilatu ez bilakatu gabe, zenbat eta jendemodu gehiago izan barruan edo inguruan hobeto, itxuraz, bederen.

G.- Zure ikerketa-lerro nagusiak: euskararen historia eta historiaurrea eta euskal testu zaharren edizio eta analisisa. Filologo izatea zer da: zehatza izatea, minimalista?

E.- Minimalistak azken urteotan hizkuntzalariak dira (sintaxilariak, hobe) nire inguruan, batzuek behintzat. Filologoak hitzaren zaleak dira (ez dago gaizki gurea bezalako herri, ustez, hitz-zale-zaletuan: beharbada interes bereziko ogibide egin beharko lukete gurea Gobernuek, Jauriaritzak gutxienez). Hizkuntzak eta horien literaturak, testuak eta bestelako lanabesak, hizkuntzaren egiturak eta aldaketak, jatorriak eta kronologiak... eta bestelako hainbat gora-behera ikasten, ikertzen, lantzen eta garatzen dituzte hemen eta nonahi filologoen, edota horretan saiatzen, bederen. Alorra zabala da, beraz, eta gure kasuan agortzetik urruti samar, nire ustez. Denetariko langileak dira bertan: onak, pasamodukoak, txarrak eta oso txarrak; nik joera dut azken sail honetakoak gure artean inon baino gehiago

direla pentsatzeko baina, seguruenik, ez bide dira proportzioak hobeak beste toki batzutan: litekeena da ere guk hemendik kanpoko kaxkarrenak jasan beharrik ez izana edota haien propaganda honaino ez iristea.

G.- Nola uztartu behar dira, modurik egokienean, euskararen iragana eta oraina? Ez dugu jakin hori egiten? (Herri baten iragan/historia soziolinguistikoa ere ezagutu behar da, gaurkoari aurre egin ahal izateko?)

E.- Filologian, eta are nabarmenago hizkuntzalaritzan, parametroak bertsuak dira (edo beharko lirateke izan) nonahi; horrek dakar usu asko ikas zenezakeela hizkuntzaren alderdi baten bilakabideaz -fonema inbentarioarenaz, erroarenaz, aditz jokatuarenaz edo deklinabidearenaz, demagun- hizkuntza uralikoei buruzkoak zein austronesioekikoak edo munda hizkuntzez zein bantuez idatzitakoak irakurriaz eta ez hainbeste bertoko zale trebakuntza berezirik gabekoenak erabiliaz.

Ni testu zaharren edizio eta azterketatik abiatu nintzen (garai batez atzenduxeak izan ditut nahiz eta ez erabat ahaztuak eta banuen bihurtzeko gogo), arrazoi nagusi batengatik: toki guztietan horiek dira hizkuntzaren iraganaz informazio gehien gordetzen dutenak. Harago jotzeko, ordea, testuak guztiz beharrezko izan arren (nahiz eta honetaz hango eta hemengo konparaziozaleak ez beti ohartu) ez dira aski: konparazioaz, berreraiketaz eta hizkuntzalaritza historikoaz zein bestelakoaz ere ikasi beharra dago, pixka bat edota pixka bat baino gehixeago.

Testu zaharretara jotzeko -berezko duten interesaz landa- zera genuen, gainera, *Fonética histórica vasca* erraldoi eta pareka ezina ni jaio aurretik argitaratua zela dagoeneko, eta baita egile beraren *Sobre el pasado de la lengua vasca* eta *Lenguas y protolenguas* ere eta are beste hainbat eta hainbat ere. Honekin esan nahi dut Mitxelenak 1965erako aurrekoen gailur guztiak hautsi eta listoia lehen baino zenbait metro goraxeago jarria ziola nik legez hizkuntzaren iragana aztertu nahi zuenari. Zorigaitzez, azken 40 urteetan (Euskaltzaindian zein handik kanpo) egin diren hizkuntzaren iraganari loturiko lan asko listoi horretatik urruti dira eta kostatuko zaigu paradigma berri hobe bat garatzea.

Baladak, Bizkaiko euskara eta testu zaharrak, XVII. mendeko lapurterazko batzuk, Larramendi eta haren aurreko hiztegitzintza aztertu nituen funtsean 1993an aurkeztu tesia baino lehen. Handik aurrera filologiatik hizkuntzaren historia eta historiaurrerantz mugitzen hasi nintzen, hasieran pixkanaka (*Refranes y Sentencias*-en edizioa ordukoa da) eta gero ia erabat euskarazko morfemen forma kanonikoaren inguruko teoria baten atzetik eta aitzineuskara zaharrago baten berreraiketaren bila; bide malkartsu eta atekaz jositako horretan zenbait urrats eman dira eta badatozke beste batzuk aurki, baina ez da lana bihar edo etzi amaitzeko

beldurrik. Hots, eskuartean ditudanak hizkuntzak historiaurrean izan duen aldaketa sakon eta zabalarri buruzkoak dira; inoiz badirudi zenbaitentzat gure hizkuntza dela azken mila, bi mila edo lau mila urteotan aldaketa nimiñorik ere gabe izan den ia bakarra edo. Hori, noski, inozokeria hutsa da eta uste dut badela hainbat datu eta argudio bestelakorik eta are kontrakorik erakusteko. Ondoren, Lazarragak, bizkaiera zaharreko testuen edizioak (*Refranes y Sentencias* agortezina barne) eta beste zenbaitek izango ahal dute beren txanda.

G.- Eta nola uztartu filologoaren eta hiztunen zereginak? (Batzuek hizkuntzaren estetikari gehiegi begiratzen zaiola kritikatzeko dute, besteek guztiz alderantziz pentsatzen dute.)

E.- Bere egunoroko bizitzan filologoa hiztun hutsa da; are gehiago, filologo bezala ni eta beste hainbat arauak eta estetikak ez gaituzte batere erakartzen. Arauemaileak eta ederzaleak ez dira usuenik filologoak -ez filologo bokazio eta formaziokoak, behintzat- beharbada, arau polit eta itsusi gehien ikusi eta ezagutu dituztenak eurak direlako. Agian, hizkuntz arauak (edota, hobe, era jakin batzuetako idazkeren eta hizkeren arauak) eta bestelakoak prestatzeko lan oso beharrezkoak egin ditzakete filologoek eta ez, aldiz, harakinek edo linterneroek, demagun, baina horrek ez dakar beren egitekoen artean arauak ematea sartzen denik edota horretarako gaitasun berezia dutenik, beharbada kontrakoa maizenik.

G.- Hizkuntza "boteretsuen" eta gutxituen arteko harremana. Non dago gakoa? Zure ustez, zelan ziurtatuko dugu euskararen etorkizuna?

E.- Soziolinguistikaz, batez ere euskal soziolinguistikaz, nik ez dakit gauza handirik. Baliteke ezjakintasun horrengatik inoiz pentsatu izana ezen soziologia txarra gehi linguistika arrunt eta baldarra ez dela soziolinguistika inon eta beharbada ezta hemen ere; nolana ere, duela 50 urteko (zein aurtengo) Labov-enak bezalakoak edota arestiagoko Trudgill-enak legezkoak ez ditut hemen nik nahi adina ikusten. Baina tira, hobe horretaz bestek hitz egitea eta gera nadin duela bi, hiru edo bost mila urteko aitzineuskara zahar zein berriarekin: horra ez zaigu oraindik soziologo eta arauemailerik iritsi eta makrokonparatista eta sasi-genetista gehi.

G.- Zein izan behar da Euskaltzaindiaren erronka nagusia, datozen urteotan?

E.- Euskaltzaindiaren eta euskaltzaleen mezu nagusia -filologoek ez dugu honetan mezu partikularrik- euskaldunentzat eta euskaraz bizi nahi dutenentzat da, nik uste, "euskara da euskaldun egiten gaituena", harako kantu hark zioen bezala. Komeni da mezu hori garbi izatea, beharbada, euskara bere lurralde historikoetan eta garai hurbilekoetan gainera, nagusi

eta ia bakar izan den tokietan ere ez baita erraz eta berehalako izango egoera gure apetaren arabera “onera” bihurtzea. Jendearen, gehiengoaren zein gutxiengo garrantzitsuen kontsentsuekin baino ezin joka liteke XXI. mendeko Europan eta ametsak helburuei buruz izatea beharrezko den neurri berean horiek lortzeko bideak amets gaiztoko zeharbideetarik ez saiatzea ere komenigarri dugu, orobat.

Nik ez dut euskararen etorkizuna ziurtatzeko inongo sendabelarrik eta ez dut besterenik ere ezagutzen probatu eta hutsik gabeko horietarik, behintzat; alabaina, edozeinek ikus lezake 20 urtetako epean diferentzia nabarmenak direla ezagutzari dagokionez, bederen, (eta ezagutza beste edozeren gainetik edo aurretik dela esango nuke) lurralde batzuetarik besteetara. Aitzinatuenetan ere abiada eta hedadura (eta, batez ere, erabilera) gehiago nahi genukeela? Baliteke, baina datuak ez ukatzea eta -emaitzetan diferentziak nabarmenak direla jabetuaz- zer den errotiko eta zer halabeharreko aurkitzea izan liteke, menturaz, hurbilketa zientifiko eta emankorrena, are “txintxoak” “txintxotzenago” jarraitzeko asmoak izanik ere.